






Arrasate

P R E S S

2000.eko
abenduaren 1a
519. zenb.



Kooperatibismoa Kolonbiari laguntzeko



ORAIN ETA HEMEN: AEK ETA UDALA ELKARLANEAN • ZALDIBAR: 4. JARDUNALDIA
KULTURA ELKARRIZKETA: MARIJE APODAKA • IRRATIA: INFORMAZIOA NAGUSI

ITURRIOTZ

A R R A S A T E

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

urteurrenak

Lur azpiko aparkalekuak

■ 43. zenb.
(1989.12.11)



San Andresko Cordoba y Oro plazan eta Makatzenako Obenerrekan lur azpiko aparkalekuak egitea

erabaki zuen udalak. Guztira 350 aparkaleku. Aparkalekuen jabeek 50 urterako aparkatzeko baimena izango lukete, milioi baten truke.

Atxiloketak Arrasaten

■ 43. zenb.
(1989.12.11)

1989ko azaroan hasitako ikerketaren ondoren, Ertzaintzak Oxarako zerbitzaria atxilotu zuen. Atxilotuaren etxea arakatzean, 2.200.000 pezeta, 100 dosi heroina, ordulariak, bitxiak eta beste hainbat gauza aurkitu zituzten. Atxilotuari proxeneta eta trafikante talde bat zuzentzea leporatu zioten, eta espetxeratu egin zuten.

Pello Zabala

■ 43. zenb.
(1989.12.11)



“Nik uste dut mikroklima dela kastigatu duguna. Hiri handietan, Gasteizen edo Bilbon, bero

ikaragarria sortzen da. Milaka autok ke-hodietatik zaborra botatzen dute airera, eta horrez gain, lantegietako tximiniak ditugu. Zikinkeria hori guztia lehen basoek, neurri batean behintzat, garbitzen zuten; gaur egun baso asko galdu egin dira. Lurrari, bestalde, pixkanaka-pixkanaka metro ugari kendu dizkiogu eta lehen lurra zena gaur egun teilatu edo errepide... dugu. Lurrari bustitzeko, freskatzeko, gozatzeko aukera kendu diogu eta urak errekarra doaz zuzenean. Basoetan pinu landaketak izan dezakeen eragina ere ez dakit neurtu den. Horiek guztiak bilduz gero, uste dut Euskal Herrian egoera nahikotxo nahastu dugula eta eguraldian eragina izan duela”.

besteek esana

“ Herri edo eskualde horretan —eta leku batzuetan hala da— bertso mugimendua eramaten duen taldea izan behar du bertso eskolak, ez bertsotan erakusten duen akademia. Esparru horretan transmisioaz arduratzen direnak, saioak antolatzen dituztenak, bertsotan egiten dutenak esparru horretako saio espontaneo eta antolatuetan... Nik horrela imajinatu nahi nuke etorkizuneko bertsolaritzaren mugimendua: tokian tokiko mugimendu txikien artikulazio bezala”.

Jon Sarasua
LARRUN
(2000ko azaroa)

aurkibidea

- Lehen begiratua 3
- Inkesta 4
- Asteko hitzorduak 5
- Astearen errepasoa 6
- Orain eta hemen 7/8
- Txutxumutxuak 11/12
- Asteko gaia 14/15
- Kooperatibismoa, lana eta bakea Kolonbian 16/17
- Kirolak jokoan 18/19
- Eskola-kirola 21
- Kulturaren txokoa 22/23
- Uhinetan barrena 24
- Foto zaharra 26



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 23 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Dieguez. **Kazetaritza:** Urbano Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrionzola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4854. **Franko kontertatua.** **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta intzienterantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza

Zer deritzozu Goienkaria egiteari bailaran zabaltzeko?

Abenduaren 1ean aterako da bailarako astekariaren lehenengo zenbakia



Garbiñe Aperribai
(68 urte)
Etxekoandrea

Ondo, telebistan ez dute ba ematen bailarako informazioa?




Elena Goñi
(40 urte)
Etxekoandrea

Ez dut ezer entzun, baina ondo deritzot.



Marikarmen Iraola
(59 urte)
Etxekoandrea

Ondo. Geroz eta informazio gehiago, hobeto. Telebista ere hasi da bailarako informazioa ematen.



Jose Luis Ugalde
(44 urte)
Langilea

Neuk Aretxabaletako eta Eskoriatzako berriak jasotzen ditut, eta ondo deritzot horrelako ekimen bati. Bailara ikuspegia badaukagula uste dut.



Jabi Gonzalez
(15 urte)
Ikaslea

Ondo. Bailarari ez diogu kasu handirik egiten, baina ondo iruditzen zait.



Garazi Muxika
(10 urte)
Ikaslea

Ondo. Niri Arrasatekoaz gain ez zait bestelakorik interesatzen, momentuz; baina, ondo egongo da.



Felix Artzamendi
(63 urte)
Erretiratua


Arrasatekoa herriko aldi-zarian jasotzen da. Bailarakoa Bertan-en jasotzen da eta errepikatu egingo litzateke.



Iñaki Alberdi
(28 urte)
Langilea

Entzut dut zerbait, eta ondo iruditzen zait. Beti da ona ingurukoen berri izatea, nahiz eta herrikoari gehiago begiratu.

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A



- Kortseak eta aparatu zuzentzaileak
- Plantillak
- Belaunetakoak, orkatilekoak, eskumuturrekoak
- Gerrikoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

GANBARA

- Enmarkazioak
- Laminak
- Estiloko markoak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37



Gabonak gainean dira. Hasi artea oparitzen!

seber altubeko ludoteka

Egin beharreko konponketak amaitu ondoren, zabalik dago berriro Seber Altubeko ludoteka. Honako ordutegia izango du: eguaztenetan, 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 17:00etatik 19:00etara.




boloa plazan

San Nikolas dela eta, boloa egingo da Herriko Plazan abenduaren 6an. Udaltzeko balkoitik gozokiak botako dira. Bi txanda izango dira: 12:00etan eta 12:30ean.



ur-eteteak

Asteburu honetan ur-eteteak eta beste hainbat arazo gerta daitezkeela ohartarazten du udalak. 15:00ak aldera izango dira gorabehera hauek, izatekotan behinik behin.



umeendako ipuin lehiaketa

XIX. Xabier Lizardi umeendako ipuin lehiaketa antolatu du Zarauzko Udalak. Sari bakarra egongo da, 400.000 pezetakoa bera. Gutxienez 12 orrialde

idatzi beharko dira. Bidali lanok ondoko helbidera: Zarauzko Udala, Euskara Zerbitzua, 20800 Zarautz. Xabier Lizardi lehiaketarako dela adierazi.

eskelak



LEHENENGO URTEURRENA

Basilisa Abarrategi
Abarrategi

Urtebeteko meza, San Juan Bautista parrokian abenduaren 7an, osteguna, arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.

Aurrez esker ona bertaraten zareten guztioi. Bere familia.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 1**
- Irizar, Erguin
- Larunbata, 2**
- Amezuza, Santa Marina
- Igandea, 3**
- Zabala, Zarugalde
- Astelehena, 4**
- Ruiz, Maalako Errabala
- Asteartea, 5**
- Morales, San Andres
- Asteazkena, 6**
- Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 7**
- Azkoaga, Iturriotz

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatara 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera	Igandea
eta larunbata	12:00 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)	

USTEAK USTE

Komunikabideak norenak?

Goienkaria dela eta, Xabier Arzalluzekin egoteko aukera izan dut. Behin baino gehiagotan esan du EAJko lehendakariak Partidu Polularra komunikabideen jabe dela eta ikusterik besterik ez dagoela ematen diren lizentzia guztiak nori ematen zaizkion. Eta gurean gertatzen dena zera dela esan zidan: "ez dakigu saltzen; Gara, Deia eta Euskaldunon Egunkaria ditugu, baina zeintzuk dira nagusi? Gipuzkoan DV eta Bizkaian El Correo Español. Zergatik? Horiek biek jendeak irakurri nahi duena ematen jakin dutelako eta gureek, berriz, ez dakite saltzen".

Horixe esan zigun. Gaur, bailaran, beste hedabide batek hasi du bidea. Ez da saltzen; doan da; euskara elkarteen da, ez alderdi politikoena. Baina, hori horren argi ikusten ez dutenak ere badira bailaran, eta, beraz, Goienkariak lagundu egin beharko die. Horrela, agian, bailarako informazioan nagusi izatea lortuko du eta jendeak gustura hartuko du.

Marijo Deogracias

astea bi hitzetan

■ Espaloi konponketa

Zigorrola auzoko Sailuente plazako, Elkano kaleko eta Errando Gebarako zati bateko espaloiak konponduko ditu udalak. Besteak beste, kolore gorriko zoladura jarriko du espaloietan. Lanak urtea bukatu baino lehen adjudikatuko dira; beraz, lanok datorren urteko lehen hilabeteetan abiaraztea espero da. Udalak ia 19 milioi pezeta inbertituko ditu espaloiak konpontzeko.

■ EHE protestan

Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz taldeetako hainbat kidek kale bilkura egin zuten egubakoitzean Eskualdeko Ospitalearen aurrean. Ekimen horren bitartez, euskarak osasun arloan bizi duen egoera kaskarra salatu eta hizkuntzaren ofizialtasuna eskatu zuten.

■ Kanpaiekin bueltaka

Herritar baten hainbat kexu jaso ondoren, San Joan Parrokiako kanpaiek sortzen duten zarata jaisteko 15 eguneko epea eman zion udalak Arrasateko parrokoari.

Orain, parrokoak epe hori luzatzea eskatu dio udalari. Parrokoak esan du zarata nola jaitsi aztertzen ari dela "Campanas Quintana" izeneko enpresa. Baina, ez ei da erraza zelan egin asmatzea, eta asti gehiago behar dute.

Udalak onartu egin du eskaera, eta datorren urtariraren 2a arteko epea eman du.

■ Errementaria bideoan

Bixente Barandiaran errementariari buruzko bideo bat egitea erabaki du herriko udalak. Berau da errementari lanbidearen azkenengo adierazlea, eta, ogibide horrek Mondragoen eta bai-

laran izandako garrantzia kontuan hartuta, ondare historiko eta industrial garrantzitsua dela uste du udalak.

Bideoan, besteak beste, errementariari egindako hamar minutuko elkarrizketa bat jasoko da eta baita errementaria lantegian lanean ari dela erakusten duten irudiak ere.

Udalak milioi erdi pasatxo erabiliko du bideoa egiteko.

■ Istripua

Martitzen goizean Seat Toledo eta Peugeot 205 markako bi autok elkar jo zuten Alfonso VIII.a eta Cordoba kaleen artean. Kolpearen ondorioz, 40 urteko emakume arrasatear bat, SKK, Eskualde Ospitalera eraman zuten zauri arinekin.

Udaltzaingoa berehala bideratu zuen zirkulazioa eta ez zen auto ilararik sortu.



■ Badihardugu

Mutrikutik Gatzagarainoko euskaltzale guztiak batu nahi dituen elkartea aurkeztu zen Mondragoen joan den eguaztenean. Badihardugu izena hartu du eta eskualdeko hizkera aztertu eta bultzatzea da bere helburu nagusia. 30 lagunek osatzen dute taldea, baina kide gehiago hartzea da taldekideen asmoa. Partaideen artean, Diego Martiartu mondragoetarra, Juan Martin Elexpuru bergararra, Mirian Txintxurreta atxabaltarra eta Koldo Zuazo eibartarra daude.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

AEK eta udalaren arteko hitzarmena

1995. urtetik elkarlanerako hitzarmen bat adosteko lanean aritu ondoren, Arrasateko Udalak eta Erdu-AEK euskaltegiak datozen bi ikasturteetarako hitzarmena sinatu dute.

Horren arabera, euskaltegian antolatzen diren eskolentzat diru laguntza emango du udalak. Aurten, orduko 1.650 pezeta emango ditu eta 2001ean, berriz, 1.750 pezeta.

BEHARREN ARABERA

Hitzarmena urtero berrizteko asmoa dute, eta AEKren beharren arabera egokitzen joango da diru laguntza. Orain arte egindako azterketen arabera, 2.500 pezeta orduko beharko lituzke euskaltegiak.

10-13 bat talde ditu euskaltegiak, 3.111 ordu, guztira.

Orain arte, udalak urtero



2 milioi pezeta inguru eman dizkio euskaltegiari. Euskaltegiko arduradunen ustez, orain, taldeko eta orduko diru laguntzak ematean, beharren, lanaren eta erantzunaren arabera jasoko dute laguntza.

Bestalde, urtea amaitu aurretik Euskararen Erabilera

Plana egitea ere hitzartu du euskaltegiak udalarekin.

Hitzarmen hau adosteko orduan, udalak uste du "helduen euskalduntze-alfabetatzea garrantzitsua dela eta ezinbesteko zaiola Arrasateko herriari bitartekoak eskuartzea jarduera hori hobetze-

ko eta hedatzeko. Horretarako, garrantzi handikoa da herritarrak udalarekin elkarlanean jardutea". Eta elkarlan horren beste adibide bat da AEK.

MOBILIZAZIOAK

Bestalde, egunotan AEKren aurka zabaldu diren epaiketa eta salaketei aurre egiteko, euskaltegiak mobiliazioetarako dei egin du. Batetik, Garzon epailearen sumarioan sartuta dauden akusatuen deklarazioekin bat eginez, atzo, gaur, astelehenean eta martitzenean kale bilkuretan herritarren parte hartzea eskatu du Erdu-AEK-k; 19:30ean, Herriko Plazan.

Horrez gain, herriko erakunde, elkarte, alderdien eta herritarren atxikimenduak ere eskatuko ditu.

Elkarrizketa sustatzen

Bittor Aierdi Elkarriko kideak hitzaldia eman zuen martitzenean udaletxean; 35 bat pertsona elkartu ziren.

Baina, harako bidean Arrasate Irratian geratu zen. Bere esanetan, munduko gatazka guztiak elkarrizketaren bidez konpondu izan dira, eta Euskal Herrian bizi dugunak ere hortik izango du irtenbidea. Aierdiren ustez, gatazkari irtenbidea emateko hiru oinarri behar dira



derrigorrez: biolentziarik eza; elkarrizketa, inor baztertu gabe; eta herritarren nahia errespetatzea.

Arizmendiarrietaren oroimenez

On Jose Maria Arizmendiarrietari hil zela 24 urte bete ziren martitzenean. Hori dela eta, Euskadiko Kutxak bere omeneko plaka bat agerian jarri zuen haren jaiotetxean, Barinagako Iturbide baserrian. Ekitaldian kooperatibetako sortzaileak eta Markinaldeko kooperatibetako zuzendariak eta agintari politikoak izan ziren. Amaieran, Aretxabale-tako Abesbatzak kantu sorta bat eskaini zuen.

Atzo, berriz, beste ome-

naldi bat eskaini zitzaion On Jose Mariari, Mondragoen oraingoan. Urteroko ohiturari jarraituz, Arizmendi Topaketak izan ziren. Gizabidea Fundazioak antolatuta, besteak beste Jose Antonio Pagola Donostiako Elizbarrutiko bikario nagusiak hitzaldi bat eman zuen eta Joseba Azkarraga LANKI institutuko ikerlariak "Lankidetzaren Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua" izeneko liburua aurkeztu zuen.

ML
ILE APAINDEGIA
 Alfonso X jakintsua, 1 behea
 (Grupo San Juan)
 Tel.: 943 79 79 65

BASATI
TABERNA
 PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
 TLF. 943 711762

Lore
 • Lurrindegia • Kabina •
 • Fotodepilazioa •
 Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Hirigintza gaiak nagusi osoko bilkuran

Udalbatzarrak hileroko bilera egin zuen atzo udaletxeko areto nagusian. Zinegotzi bat gutxiagorekin egin zen batzarrara, joan den astean Partidu Popularreko Jose Ramos Prieto zinegotzia hil zen-eta. Oraingoz PPK ez du izendapen berriarik egin, ez delako erabaki nork bete ahal izango duen Ramos Prieto zenaren lekua.

Udalbatzarrak 23 gai zituen zerrendan, gehienak hirigintza kontuekin lotutakoak.

DIRU KONTUAK

Batetik, Deba ibaia bideratu eta Zabaletan zubiak eraikitzeko proiektuaren finantzaketa eztabaidagai izan zen. Bi finantzabide izango ditu egitasmo horrek: erdia Eusko Jaurlearitzatik jasoko du, eta beste erdia Aldundia, Eroski eta udalaren artean finantzatzeko asmoa



Eroski inguruan egin beharreko lanak finantzatzeko bideak landu ziren.

dago. Aurrekontua 216 milioi pezeta ingurukoa da.

Bestalde, 47 bat milioi pezeta egokitu nahi dira ASAM pabilioia egokitzeko, POL-METASari laguntzeko.

“Monterron-Erguin zumardia”ri dagokionez, erabaki egin behar zen proiektua

egiteko jabe gabetu behar diren ondasunen zerrenda onartzea edo ez. Onartuz gero, zerrenda jendaurrean jarriko da alegazioak jasotzeko.

MOZIOAK

Bestalde, azkenengo atentatuak eta hilketak gaitzesteko,

EAJk eta EAK mozio bana aurkeztu zuten.

Arrasateko Solidarioek, ostera, euskal presoekin lotutako beste mozio bat aurkeztu zioten udalbatzarrari. Presoen eskubideak errespetatuz gero, modu instituzional eta publikoan 1995etik zigorraren 3/4ak beteta dituen Pedro Guridi arrasatearra aske uztea eskatu nahi dute. Horrez gain, azkenaldian lau preso arrasatear Euskal Herritik urrundu dituztela salatzea ere eskatu zuten, eta baita presoen gaiaz arduratuko den batzorde bat sortzea ere.

Edozelan ere, *Arrasate Press* inprimategira bidali zenean, osoko bilkura amaitzeke zegoen, beraz, ez dakiugu zeintzuk izan diren hartutako erabakiak.

Ur-arazoak

Zerbitzu sailak jakinarazi digunez, bihar eta etzi etxeko urarekin arazoak izan ditzakete Nafarroa etorbideko bizilagunek. Urkulutik ura ekartzen den hodian lanak egingo dira asteburuan, 15:00etatik aurrera. Ondorioz, posible da ur-eteteak izatea eta etxebizitzetara ur zikina heltzea. Horrela izanez gero, komenigarria da etxeko ur-txorrotak zabalik utzea apurtxo batez; era berean, txorrotako ura ez edateko gomendatu dute.

Kartoa batzeko zerbitzu berezia

Gaurtik aurrera bailarako kartoa batzeko zerbitzu berri bat eskainiko du Debagoieneko Mankomunitateak. Denda eta enpresa txikiak zuzendutakoak da eta merkatariek orain jasaten dituzten eragozpenak konpontzea da zerbitzuaren helburua.

Etxeko zaborra uzten den leku berean pilatu behar da kartoa. Hori bai, txukun eta behar bezala batu-




ta edo pilatuta utzi beharko dute, bilketa errazteko.

Etxeko zaborra batzen den egun berean utzi beharko da kartoa, arratsaldeko 7ak baino lehen. Izan ere, 19:00ak geroztik, batu ez den kartoa hurrengo bilketara arte batu barik

geratuko da. Oñatin, berriz, beste ordutegi bat dago: eguerdiko 12etan atera beharko dute kartoa merkataria oñatiarrek.

Esandako orduak baino lehen ez ateratzea eskatu du Mankomunitateak, kalean arazorik ez sortzeko.

Horrez gain, kartoiarekin batera ezin izango da atera plastiko, poliespan, metalezko osagai edo beste gai arrarorik, horrek balio barik utziko luke eta bilketa.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Tbilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erlebedun hizkiak



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

Etxebizitza Kontua

EUSKADIKO KUTXA



Maletak egiteko asmotan bazabiltza...

Euskadiko Kutxak zugaran pentsatu du.

**Ireki Etxebizitza kontu bat,
eraman bi opari hauek**

eta has zaitez oraintxe bertan zure etorkizuneko etxebizitzagatik desgrabatzen. Informa zaitez.

Irekitzen diren kontuentzat bakarrik.
Gutxieneko sarrera 150.000 pta.
Promozio honek
2000-12-15era arte balio du.

901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA


Zurekin
elkarlanean



OMU
ZERAMIKAK

Zeramika,
arte unibertsala

POZTUKO ZEN SANTA ZEZILIA!




Ederki ospatu zuten Mondragoetarrek Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna: Goikobaluk eta Arrasate Musikalek emanaldi bana eskaini zuten. Gainera, argazkiko txistulariek eraman zuten ospakizuna kalera, bazter guztiak alaituz.

ZILARREZKO EZTEIAK



JOSTALARIEN PARADISUA



Azaroko zapatu guztietan jolasleku bihurtu da San Andres Herri Eskola, Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltariari esker. Txikienendako pentsatuta bazegoen ere, ikus dezakezuen bezala hain txikiak ez direnek ere izan zuten gozamina haiei lagun egiten.

Abenduaren 6an 25 urte izango dira Dionisio eta Maria ezkondu zirela. Hori ospatzeko, familiarteko bazkaria izango dute hilaren 2an. Euren seme-alabek, Gaizka, Asier eta Amaiak, eta ama Karmenek, zorionik bero-beroenak opa dizkiete. Urte askotarako!



ESKUAK BETE GAZTAINA




Izugarrizko algararekin ospatu zuten Gaztainerre Jaialdia Erguin Herri Eskolakoek. Gaztainak jan ez ezik, danbolinari eragin eta eragin ere ibili ziren hango ikasleak. Aspaldian galdu samarra genuen festa hori ederki berpiztu zuten.



LEHENGUSUAK JAI GIROAN

Lehengusuen afaria egin zuten 18 lagun hauek. Aramaioko Etxebarrikoak dira jatorriz, baina bailarako hainbat herritan bizi dira. Afaria Bittorin izan zen, eta goizean goizera arte giro ederrean ibili ziren. A! Eta hori guztia osaba Dabidi esker izan zela esan digute.

ANTZERKIAREN MAGIA



Zapatuan ume mordoak joan zen Amaia antzokira Kukubiltxo taldearen "Txirrikiz" antzezlana ikusteko. Pertsonaia barregarriak, serioak nahiz xarmagarriak pasa ziren agertokitik. Izaki mitologikoak ere kukuka aritu ziren.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

Kalitatezko kazetaritza inoiz baino eskurago



Froga ezazu etxean
15 egunez doan

Abenduaren 6tik aurrera Euskaldunon Egunkaria berritua ez zaizu ezer kostako.
Ikusgarriagoa delako, informazioaren gako guztiak
lehen begi-kolpean emango dizkizulako eta, nahi izanez gero,
DOAN jaso ahal izango duzulako.

Bai, 15 egunez **DOAN** jaso nahi dut Euskaldunon Egunkaria etxean.

IZEN

ABIZENA

HELBIDEA

HERRIA

K.P.

TELEFONOA

e-mail

Bete eta bidali postaz: Euskaldunon Egunkaria. Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain,
e-mailez: ezagutu@egunkaria.com edo telefono honetara deituz: 943 30 02 22.

g e r o e t a g e h i a g o

10
Egunkaria
urte

Kooperatibismoa, lan

Kolonbiarren arteko ezberdintasunak aldatu nahian

Ekonomia ikasteko joan zen Sarrikora Susana Gomez. Eta tesia egiteko garaia ere iritsi zitzaion. "Kooperatibismoaren gainean egin nahi nuen eta Intercampus proiektuarekin Kolonbiara joateko aukera izan nuen. Hori 1998ko udan izan zen".

Kolonbiarako lehenengo bidaia baino

ez zen izan hura. Hiru hilabete egin zituen Bogotan eta hango unibertsitate batekin eta bertako hazkunderako kooperatiba batekin lanean aritu zen. "Oso hilabete aberasgarriak izan ziren. Leku askotan izan ginen eta kooperatiba asko ezagutu genituen". Susanaren bizitza erabat

aldatu zuen Kolonbiarako bidaiak. Iaztik han bizi da eta han lan egiten du.

"Kolonbiako egoera oso txarra da, baina lanerako prest dagoen jende asko dago eta egoera aldatu dezaketela uste dute, eta baita gizarte alternatibo bat sortu ere".

Bere lankideak lehenengo bidaia hartan ezagutu zituen. "Orduan proiektu berri bat egitekotan ziren, baina ni ikastera itzuli nintzenean hasi zuten proiektua: "Kooperatibismoa, lana eta bakea Kolonbian". Sindicato de las Cajas de Compensacion delakoak bultzatu du proiektua. Langileentzako gizarte laguntzak gestiona-tzen dituzte. Gehien zuten langileen errekurtsoak gutxien zutenen artean banatzea zen helburua. "Baina, sindikatuek ikusi zuten errekurtsoak ez zirela nahiko. Baliabide gutxi zituzten langileentzako laguntzak ziren, baina biztanleen %70 langabezian daude; beraz, jendeak ez du laguntza jasotzen. Banaketa zerbitzu hau hasi zenean, industria babes-tea zen helburua, eta horretarako, esportazioak inportazioak baino handiagoak izan behar ziren. Baina, gaur egun ekonomia naziortekotu egin da eta sistema ez dabil. Beraz, bertako industria ez bada babesten ez dago zer eginik aurretik egindako antolaketaekin". Susanak azaldu digunez, korrupzioa ere kontuan hartu behar da, "azkenean, dirua

gutxi batzuen eskuetan gelditzen baita".



Susana (eskuatik hasita lehenegoa) "Ama komunitarioak" taldearekin. Etxalde komunitario bat egitea zuen helburu taldeak, umeak zaintzen ziren bitartean.

SUSANAREN PROIEKTUA

"Helburua Cajas de Compensacion horien araudia aldatzea da, dauden errekurtsoak autogestionatutako ekonomia bultzatzeko izan daitezten. Bada-kigu araudia aldatzea oso zaila dela, baina kontuan izan behar dugu eurek dituzten errekurtsoen %15 nahi beza-

la erabiltzeko direla, eta horiek liriteke autogestionatutako ekonomiara bideratu nahi ditugun errekurtsoak. Gero, jakina, heziketa, kreditu bidezko enpresen finantziaketa eta Kajak duen merkaturako errekurtsoak enpresa horiek bultzatzeko erabiliko dira".

"Egon badaude hainbat kooperatiba ekimen, baina oso lokalak dira; oso txikiak. Dena dela, guztiak ezagutzen ditu-

gu eta intesgarria da horiek guztiak elkartzea eta bultzatzea".

LAN EGITEKO MODUA

"Autogestionatutako ekimen arrakastatsu bat bultzatu nahi dugu, behin batek emaitza onak ematen baditu, jendeak proiektuan sinistuko duelako. Hori dela eta, Boyacari buruzko ikerketa bat egiten ari gara, eta emaitzen arabera, bide-

eta bakea Kolonbian



“Arrainak hazteko haztegiak ere bultzatu dira. Kooperatiba sisteman antolatu dituzte eta eurek gestionatzen dituzte”. Irudiotan horrelako haztegi bat ikusten da.

ragarriak izango diren proiektuak hasiko ditugu. Urtarri-lerako amaitu nahiko genuke ekonomiaren ikerketa eta Caja horrekin konpromisoak zehaztu”.

Sei hilabete daramatza horretan Susanak kolonbiarrekin lanean. Baina, Deba-гойenetik ere laguntza ekonomikoa izan du. “Oñatiko, Arrasateko eta Aretxabaletako udalek eta Fagor Elektresnak kooperatibaren diru laguntzak ditugu eta azaroan Fagor Ederlan eta Fagor Taldeak ere diru laguntza eman digute”.

“Autogestionatutako ekimen arrakastatsu bat bultzatu nahi dugu”

ORAIN ARTE JASOTAKO DIRU LAGUNTZAK

Oñatiko Udala	925.000 pezeta
Aretxabaletako Udala	400.000 pezeta
Arrasateko Udala	500.000 pezeta
Fagor Elektresnak	350.000 pezeta
Fagor Ederlan	150.000 pezeta
Fagor Taldea	750.000 pezeta

KOKAGUNEA

Kolonbiako ekialde erdialdean dago Boyaca probintzia, Andeetako mendikatean.

Garai batean, departamendu horretan, Chibchas eta Muiscas indiarrak bizi ziren, Hispaniako konkistatzaileak iritsi aurretik.

1821. urtean, Errepublika garaian, sortu zen Boyaca departamendua eta 1857. urtean estatu burujabe egin zen, baina 1886az geroztik gaur egungo izaera administratiboa dauka.

23.189 km koadro ditu eta 1993. urteko erroldaren arabera 1.183.409 lagun bizi dira han. Horietatik 532.125 herrietan eta 651.284 landetan.

Biztanleen %47 litzateke biztanleria aktiboa eta %21 ikasleak lirateke.

Indiarren kopurua nahiko txikia da: 2.170 lagun, hau da, departamenduko biztanleen %0,2.

EKONOMIA

Nekazaritza da hango ekonomia jarduera nagusia eta papa, garia, garagarra, artoa, azukre kañabera, tipula eta hainbat fruta dira (madaria eta zitri-

koak) gehien produzitzen direnak. Baina, geroz eta abeltzain gehiago dago: batez ere, esnea ematen duten behiekin aritzen diren abeltzainak eta baita txerriak hazten dituztenak ere. Izan ere, prezioek gorabehera asko izaten dituzte.


Orain dela 15 urtera arte industria ere bazegoen, meategiak batez ere. Susanak azaldu digunez, “industria krisian egon arren, badago industrian lan egin duen jende asko eta ikasketak dituen jende asko ere bai; gaur egun, beste egoera bat dago, ikaslea oso garestia da. Hiru unibertsitate daude eta gaur egun teknikari asko dago, baina langabezia. Guretzat garrantzitsua da ikasitako jendea egotea, gure proiektua garatzeko jende horrek dakiena beharrezkoa delako”.

KOLONBIAKO BIZIMODUA

“Gu gauden lekuan ez dago paramilitarrik; ez dago konfrontaziorik. Gune lasaia da, baina biolentzia ikerketak egin izan dira eta Boyacan bortxakeriarik handiena familien barruan gertatzen dira. Ume gehienek 12 urterekin eskolara joateari uzten diote. Bide luzea egiten dute oinez, hiru bat ordu-edo. Unibertsitate publikoa badago, baina hemen baino garestiagoak dira tasak. Egoera ekonomikoa kontuan izanda, hezkuntza aberatsendako dela esan genezake”.

Marijo Deogracias

XAKEA Etxean irabazi



Etxean irabazi egin zuten Arrasate A eta B xake taldeek. Al Andalusen aritu ziren, Gipuzkoako

ligan biak ere.

A taldeak Donostiako Fortunari 3 eta 1 irabazi zion. Partida luzea izan zen oso; sei ordu baino gehiago eman zuten. Horri esker, arrasatearrak lehenengoak dira sailkapen orokorrean Urnieta taldeak dituen puntu berberekin.

B taldeak, berriz, Ibarra-ko laukotea izan zuen aurrez aurre. Emaitza berarekin amaitu ziren partidak: 3 eta 1, mondragotarren alde.

Arrasate C eta D-k kanpogan jokatu zuten. C taldeak galdutako egin zuen, eta hori dela eta, Gipuzkoako lehen mailari eusteko zailtasunak izango ditu. D taldeak, berriz, Azkoitian jokatu zuen eta lau partidak irabazi egin zituen. Laukote horrek, horrela segituz gero, datorren

denboraldian bigarren mailan jokatzeko aukerak ditu.

SASKIBALOA Hiru segidan galdu



Kenci Arrasatek hiru partida galdu ditu bata bestearen ondotik. Iturripen


jokatu zuten Lander Errastiren mutilek Erro Eugi nafarren aurka. Denboraldiko lehen itzulia amaitzeko lau partida geratzen dira, eta gauzak okertzen ari zaizkie arrasatearrei. Partidari dagokionez, etxekoek joko motela egin zuten hasieran eta probetxua atera zuten nafarrek. Horrela, bada, azkenengo bi laurdentan, aurre hartu nahian, jokoak azkartu zuten etxekoek, baina akats asko egin zituzten eta 78 eta 92 galdu zuten.

Larunbatean Carrefour Paules taldearen aurka jokatuko dute Barakaldon.

Beste kontu batzuk ere

baditugu Kenci Arrasateren gainean. Gabonetako loterian jokatzeko zenbaki bat erosi dute: 51.718 zenbakia, hain zuzen ere. Dagoeneko salgai dago.

ESKUBALOA Lehen itzulia amaitu da



Arrasateko eskubaloi taldeek denboraldiko lehen zatia amaitu dute dagoeneko,

eta denetarik emaitzak egon dira herriko talde hauentzat. Izan ere, kadeteek igoera aldiako partidak jokatzeko txartela eskuratu dute, baina gazte mailakoek, berriz, ez. Hori dela eta, gazteek bigarren mailan jokatuko dute.

Asteburuko emaitzei dagokienez, Arrasate Almen taldeak galdu egin zuen Aierroren aurka. Beste bi taldeek, berriz, irabazi egin zituzten etxean jokatutako neurketak.

Bergararrak eta arrasatearrak aurrez aurre

Frontenis txapelketako finala eta 3. eta 4. tokiak jokatuko dira asteburuan. Eta aurrez aurre arrasatearrak eta bergararrak izango dira. Joan den asteburuan Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia finalerako sailkatu ziren, 25 eta 12 irabazi eta gero, Igor eta Joseba Cusi-aren aurka.

Iñakik eta Kepak Patxi Valleko eta Xabier Albizua bergararrak izango dituzte aurrez aurre.

3. eta 4. tokiak, berriz, Cusi anaiek jokatuko dituzte Jose Izquierdo eta Candido Urtado arrasatearren aurka.

Bi partidak larunbatean jokatuko dira Aretxabaletako kiroletxean.

12:15ean finala jokatuko da, eta 13:15ean, 3. eta 4. tokiak

Emaitzak

SASKIBALOA

- **Seniorrak:**
K. Arrasate 78 - Erro Eugi 92
- **Kadeteak, neskak:**
Andraitx 9 - Kenci Arrasate 28
- **Kadete, mutilak:**
Kenci Arrasate 68 - C.D. Internacional 48

ESKUBALOA

- **Seniorrak:**
Aierro 26 - Arrasate Almen 20
- **Gazteak:**
Arrasate 26 - Lasaie 13
- **Kadeteak:**
Arrasate 22 - Bergara 22

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Arrasate 12 - Atletiko de San Sebastian 28
- **Gazteak:**
Getxo 27 - Arrasate 27

Kadeteak:

Eibar 0 - Arrasate 47

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Hamaikak Bat 1 - Mondra 0
- **Lehen mailako gazteak:**
Mondra 2 - Hamaikak Bat 3
- **Bigarren mailako gazteak:**
Arrasate 2 - Aurrera Ondarrua 1
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 1 - Zarautz 3
- **Bigarren kadeteak:**
Eibartarrak 1 - Arrasate 0
- **Infantilak:**
Arrasate 4 - Sporting Herrera 2

XAKEA

- **Gipuzkoako liga:**
Arrasate A 3 - Fortuna 1
Arrasate B 3 - Ibarra 1
- **Gipuzkoako lehen maila:**
Azkoiti 0 - Arrasate 4

Jokatzekoak

ESKUBALOA

- Iturripen, larunbatean
- **Seniorrak:** Arrasate Almen - Legazpi, 18:00etan
- **Gazteak:** Arrasate - Leizaran, 16:15ean

FUTBOLA

- larunbatean
- **Lehen erregionala, mutilak:**
Mondra - Kilimon, 15:30ean
- **Lehen erregionala, neskak:**
Mondra - Hamaikak Bat, 11:30ean
- **2. kadeteak:** Arrasate - Aretxabaleta, igandean, 12:00etan

PILOTA

- larunbatean, 16:00etan
- Uarkapen
- **Taldearen arteko txapelketa:**
Arrasate (Osinaga, Lazkano) - Añorga
- **Liga:**
Arrasate (Zuazua, Agirre) - Tolosa

XAKEA

- **Gipuzkoako 3. maila:**
Arrasate D - Idiazabal B larunbatean, 16:00etan, Al-Andalusen

Errasti eta Zuazubiskar finalera

Arrasateko pilotariek ez dute ez Uarkapeko pilotalekua betetzen, baina emaitza bikainak lortzen dituzte. Joan den ostiralean Josu Errasti eta Lordi Zuazubiskarrek irabazi egin zuten taldeen arteko txapelketako finalerdia Eibarren. 22 eta 4 hartu zituzten mendean Etxabe eta Bengoetxea eibartarrak. Eibarko pilotariak Aspe enpresarekin entrenatzen dira, baina kasu honetan mondragotarren heldutasuna nagusitu zen.

Bigarren mailako afizionatuek ere partida polita egin zuten larunbatean Uarkapen. Osinaga eta Lazkano aritu ziren talde arteko txapelketako final laurdenetan. Zumarragako taldearen aurka jokatu zuten. Pilotariak Pueyo eta Rodriguez izan ziren eta, aurrekoek baino markagailu estuagoarekin, irabazi egin zuten mondragotarrek (22-16). Osi-



Belategi eta Lazkano.

nagak eta Lazkanok, beraz, finalerdia jokatu dute aste-buru honetan 16:00etan Uarkapen, Añorgaren aurka.

HIRU PORROT

Baina, Arrasateko pilotarien artean guztia ez da irabaztea, eta horren adibide, kadete eta jubentilek egin zutena asteburuan. Ostiralean bigarren mailako kadeteek, Jimenezek eta

Arroiabek, 22 eta 16 galdu zuten Billabonan.

Zuazuak eta Agirrek, berriz, 22 eta 14 galdu zuten Tolosan, eta 1. mailako gazteei sekulako jipoia eman zieten Abarrategi eta Errarte eskorriatarrak. 22 eta 4 galdu zuten larunbat goizean Uarkapen.

Bigarren mailako gazteek ere partida zuten, baina azkeanean, aurkarietako batek min

hartu zuela eta, jokatu barik irabazi zuten eta txapelketan segitzen dute.

EGUNKARIAREN JAIALDIA

Euskaldunon Egunkariak, hamar urte betetzen dituela ospatzeko, pilota jaialdia antolatu du Uarkape Udal Pilotalekuan. Eskuz binakako bi partida antolatu ditu ostiralerako. Lehenengo neurketan Gonzalez-Irigoien eta Xalaxandorena egongo dira aurrez aurre. Estelarrean, berriz, Goñi II.ak eta Zezeagak jokatu dute Olaizola II.a eta Goñi III.aren aurka. Hasiera batean Goñi II.aren bikotea Berna izan behar zen, baina azken orduko aldaketak direla eta, Zezeaga arituko da atzelari.

Jaialdia 22:30ean hasiko da eta sarrerak jaialdia hasi baino ordu erdi lehenago jarriko dira salgai.

Ander Landaluze Euskal Herriko enduroko txapeldun

Azaroaren 12an amaitu zen Euskal Herriko enduro txapelketa Barakaldon. Guztira bost proba jokatu dira Amurrión, Elgoibarren, Zallan, Gernikan eta Barakaldon. Arrasate Motorzale Elkartetik Jabier Arregi "Txikitin", Eduardo Galdos eta Jose Angel Zurriarain "Pirulo" ibili dira. Guztiak beterrano mailan parte hartu dute eta txapelduna ere Motorzale elkartekoa da: Ander Landaluze: "Ez ditut proba guztiak irabazi, baina oso erregular aritu naiz eta hori da garrantzitsuena".

Bost lasterketen artean gogorrena Gernikakoa izan zela aitortu digu Landaluzek: "Espainiako txapelketako proba izan zen hura, baina Euskal Herriko txapelketarako bali-



garria zenez hara joan ginen. Ibilbidea ia bikoitza zen. Gure lasterketak 100 bat kilometrokoak izaten dira eta Espainiakoak 175 zituen. Guk egiten ditugunak 4-5 orduko ibilbideak izanik, Gernikakoa askoz ere luzeagoa izan zen. Gainera,

sekulako eguraldi txarra egin zuen. Inoiz ez dut horrenbeste lokatzik ikusi". Hala ere, egun hartan bigarren izan zen. Elgoibarko ibilbidea izan da gehien gustatu zaiona: "konplikatu samarra zen, eta era guztieta-ko oztopoak zituen".

KIROL BERRIA

Ander Landaluzek urteak egin ditu motoan ibiltzen, baina enduro modalitatean orain dela gutxi hasi zen. "Euskal Herrian orain dela hiru urtera arte ez da horrelako txapelketarik egon. Gu beti trialean ibili izan gara, baina oso gustura nabil orain. KTM 200 motoa daukat, austriarra; bi denboradun motorra dauka eta gure inguruetan ibiltzeko oso aproposa, gutxi pisatzen duelako eta indar handia duelako. Pena ematen dit lehenago ez ezagutu izana modalitate hau".

"Arrasateko inguruak aproposak dira horrelako txapelketak antolatzeko; datorren urterako saiatu egingo gara txapelketaren bat antolatzen".

Emaitzak

A taldea

Txeyenex 0 - Betrayer 3
 Kanp. Harrobia 2 - Katxiporra 4
 Dribling 3 - Lasagabaster 3
 The Pippol 0 - Bikain Akademia 1
 Komando Alpar. 7 - AC Surkos 2
 Leya 1 - Aurrera Bolie 3
 Serengeti 4 - Goma 2 4
 AL Ion 2 - Azkena YK 5
 IKP 1 - Makanaki FC 0

B taldea

Rayo Aldeano 3 - DKB Kobate 3
 Etxerat Taberna 3 - EPEH 1
 Irati STS 2 - Txotx 2
 New Makanaki 1 - Fraguel Gol 6
 Iriztu 6 - Kamasutra 4
 Abocajarro 3 - KJ Basati 7
 Sas T 2 - AKTA 13
 Full Duplex 0 - Usotz Potroak 7
 Alai Goz. 2 - Pepelus.Inse.com 8

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	3	3	0	0	23	2	6
Komando Alpar.	3	3	0	0	20	11	6
Bikain Akademia	3	3	0	0	12	5	6
Goma 2	3	2	1	0	21	8	5
Dribling	3	2	1	0	15	8	5
Katxiporra	3	2	0	1	14	12	4
YK azkena	3	2	0	1	11	14	4
Lasagabaster	3	1	1	1	15	11	3
Serengeti	3	1	1	1	13	14	3
Betrayer	3	1	0	2	14	17	2
AC Surkos	3	1	0	2	14	17	2
Kanp. Harrobia	3	1	0	2	9	12	2
Leya	3	1	0	2	8	10	2
IKP	3	1	0	2	8	18	2
Txeyenex	3	1	0	2	6	12	2
The Pippol	3	0	0	3	7	14	0
AL Ion	3	0	0	3	6	29	0
Makanaki	3	0	0	3	2	7	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etxerat Taberna	3	3	0	0	24	5	6
Fraguel Gol	3	3	0	0	19	2	6
Pepelus.Inse.com	3	3	0	0	16	4	6
Iriztu	3	3	0	0	13	6	6
Irati STS	3	2	1	0	17	7	5
AKTA	3	2	0	1	20	9	4
KJ Basati	3	2	0	1	20	9	4
EPEH	3	2	0	1	9	7	4
Txotx	3	1	1	1	6	6	3
Kamasutra	3	1	0	2	10	9	2
Usotz Potroak	2	1	0	1	8	3	2
AT Celaya	2	1	0	1	7	8	2
Full Duplex	3	1	0	2	5	15	2
Rayo Aldeano	3	0	1	2	8	17	1
DKB Kobate	3	0	1	2	7	13	1
Abocajarro	3	0	0	3	7	23	0
Alai Gozokiak	2	0	0	2	3	14	0
Sas T	3	0	0	3	2	20	0
New Makai	3	0	0	3	2	23	0



Hurrengo partidak / 4. jardunaldia

abenduak 1, larunbata

Zaldibar

09:50 AT Celaya - Pepelus.insero.com (Goma 2)
 11:00 Komando Alpar. - Goma 2 (AT Celaya)
 12:00 Txeyenex - Katxiporra (Komando Alpar.)
 13:00 Etxerat Tab. - Fraguel Gol (Katxiporra)
 14:00 Betrayer - Lasagabaster (Etxerat Tab.)
 15:00 AL Ion - IKP (Betrayer)
 16:00 KJ Basati - New Makai (AL Ion)
 17:00 Serengeti - Makanaki FC (Koka Juniors Basati)
 18:00 Rayo Aldeano - EPEH (Serengeti)
 19:00 Full - Alai Gozokiak (rayo Aldeano)

Iturripe A

14:50 DKB Kobate - Txotx (Kanpanzar Harrobia)
 16:00 Kanpanzar Harrobia - Bikain Akademia (DKB)

Epailea

Iturripe B

14:50 You Know Azkena - Leya
 16:00 Irati STS - Kamasutra

Epailea

(Kamasutra)
 (DKB)

Igandea, 2

Zaldibar

10:50 Sas T - Usotz Potroak
 12:00 Dribling - AC Surkos
 13:00 Iriztu - AKTA

Epailea

(AC Surkos)
 (Sas T)
 (Dribling)

Atsedena: Abocajarro, Aurrera Bolie.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Txitxinpe

Berezitasunak
 Kazuelatxoak
 Otarteko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Taktika berria

Kanpora joaten diren baloiak jasotzeko ala atezainari laguntzeko?

Ez dakigu zertan ari zen mutikoa, baina bik golak gelditzeko aukera gehiago dituzte, ezta?



THE PIPPOL KALERA

Dagoeneko talde bat gutxiago dabil Zaldibarko txapelketa jokatzeko: The Pippol. Ez zuten arautegia bete eta berandu iritsi ziren euren partidara. Kontuak horrela, araudia eskuetan hartuta, taldea kalera bota dute antolakuntzakoek. 0 eta 1eko emaitza eman zioten euren aurkariei, Bikain Akademiari, eta The Pippol, kalera. Horretaz gain, Bikain Akademiak beretako puntuak eskuratu ditu eta kaleratutako tal-

deari esker, bere aurka jokatzea tokatzen zitzaizen taldeek puntuak eskuratu dituzte jokatu barik.

Gogoratu, bada, horrelakoren bat egin aurretik gertatu dakizuekena eta adi zaindu ordua. Bestela, kalera eta fidantza barik!

DERBIA AURRERA BOLIE TALDEARENTZAT

Aurreko asteburuan esan genizuen aipatzeko partida bat zegoela: Leya-Aurrera Bolie.

Bi taldeak koadrilla berekoak dira eta euren artean jokatu behar izan zuten. Azkenean 1 eta 3 irabazi zuen Aurrera Boliek eta eurentzat izan ziren lagun arteko derbian jokatutako puntuak.

AIPATZEKO PARTIDA

Asteburuan ere lagun arteko beste partida bat jokatuko da. Bi talde hauek ez dira koadrilla berekoak, baina kafea elkarrekin hartzen omen dute. Komando Alpagat eta Goma

2 taldeez ari gara. Larunbatean jokatuko dute 11:00etan. Zorte on!

ORDUBETE ATZERATU

Larunbatean Zaldibarren jokatuko beharreko lehenengo partida ordubete atzeratuko da. 09:50ean hasiko da txapelketa laugarren jardunaldia. AT Celaya eta Pepelus.inser-so.com taldeek jokatuko dute. Epailea, Goma 2 taldeko lagun bat izango da. Adi, beraz, iratzargailuei!

943 344 494

www.deika.com

- TELEF. FINKOA
- TELEF. MUGIKORRA
- AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
- INTERNET
- TELEFONOGUNEAK

DEIKA
telekom

ENPRESA ETA PARTIKULARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA

Eta orain Arrasaten ere bai:

ARRASATE
Kontzeziño, 12

BANATZAILE OFIZIALA: **Euskaltel**

ERRETERIA
Morrongilleta, 1
M. Etxeberria, 1

BEASAIN
Nafarroa Hirib., 25

URRETXU
Areizaga, 1

Gizonak
Emakumeak

UPK
Jantziak

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

HARTU ARGIA ASTERO



- Urtebetean 46 ale
- Euskal Kulturaren Urtekaria doan
- Orain harpidetuz gero, gure azokako opari bat zuretzat

- Zure helbidean jasoko duzu merkeago
- Gure azokako produktuetan deskontu bereziak
- Zozketa eta eskaintza berezietan parte hartzeko aukera

KONPROMISOAREN KOLOREAK DITUGU

IKASLEENTZAT! % 25eko BEHERAPENA (ikasle txartelaren kopia bidaliz)

- URTEBETEKO HARPIDETZA (BEZa barne)**
- Hego Euskal Herria: 16.400 pzta / 98,57 euro
 - Ipar Euskal Herria: 780 libera / 118,92 euro
 - Espainia: 16.400 pzta / 98,57euro
 - Beste Atzerriak: 21.100 pzta / 126,81 euro
 - Airez: 33.000 pzta / 198,33 euro

zena:1. deitura:2. deitura:

N.A./I.F.K.: Helbidea:

Posta kodea:Herria:Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota (markatu x batez): Bankuz Transferentziaz ARGIAren kontura
 (Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik)
 Banku edo aurrezki kutxa: Titularra:
 Titularraren telefonoa Titularraren helbidea:

Entitatea Bulegoa K.D. Kontu Zenbakia


DATA:

SINADURA:

Alfonso Donnay Arrasate Kirol Proiektuko lehendakaria



Bosgarren ikasturtez da AKPko lehendakari. Bere alaba eskolan ari zenean sartu zen zuzendaritzan, eta ordutik bera dago lehendakari. Behin baino gehiagotan esan izan dugu AKPko zuzendaritzan ikastetxe bakoitzeko aita bat dagoela ikastetxe bakoitzeko ordezkari banarekin. AUKEAko ordezkari bat ere badabil hor lanean.



👉 Zelan hasi zinen AKPn?

— Guraso nintzela. Askotan galdetu didate kirolik egiten dudana, baina egia esateko kirolik ez dut egiten. Hala ere, beharrezko ikusten dut AKPk egiten duen lana. Hasiera batean, jakina, kosta egin zitzaidan proiektua ulertzea, baina, bost urteren bueltan, uste dut AKPk izaera hartu duela.

👉 Zer da AKP?

— Lehenik eta behin, ikastetxeen aktibitate bat da. Eskola orduetatik kanpo egiten da, baina ikastetxeak parte hartzen du. Eskolek parte hartuko ez balute proiekturik ez litzate-

ke egongo. Aktibitate osagarria da heziketa. Ikastetxeen-gatik ez balitz ez genituzke horrenbeste ume izango. Ikastetxe pribatu eta publikoak proiektu bateratu batean elkartzea ez da beste inon gertatu; oso garrantzitsua da horrelako ekimen bat. Gainera, eskola-kirola antolatze modurik egokiena dela uste dut.

👉 Lehiaketa bigarren mailan uzten du Proiektuak.

— Beno, gutxieneko lehiakortasuna egon behar da, baina hori inportanteena ez izaten saiatzen gara. Nire ustez, hori ona da. Dena dela, hainbat kirol elkarterekin arazoak izan ditugu; batez ere, esaten dute gure umeek ez dutela maila ematen beste herri batzuetako umeen aurrean. Baina, gure ustez, euren adinean garrantzitsua goa da parte hartzea eta ondo pasatzea eta kirolaz gozaten ikastea. Umeak kirolean haz-

tea da helburu nagusia eta horretan saiatzen gara.

👉 Aldatu da AKP?

— Filosofia bērarekin segitzen du, baina kirol eskaintza zabaldu dugu eta begiraleekiko harremana antolatua dugu. Euren egutegia antolatu dugu eta begiraleekin lanean hasi aurretik ikastaroak eskaintzen dizkiegu AKP eza-gutzeke eta, bide batez, nora datozen jakin dezaten.

👉 Aurrera begira, zein da erronka?

— Proiektuan parte hartzen duten nesken kopurua handitzea. 1991-1992 ikasturtean kirola egiten zutenen artean %35 neskak ziren; iaz, berriz, %40. Mutilen artean, aldiz, 1991-1992an %43 mutilak ziren eta iazko ikasturtean, %64.

Nesken parte hartzea gehitzeko udaletxeko emakume sailarekin harremanetan gabiltza, eta zerbait antolatzekotan ari gara hori bul-tzatzeke.

Asteburuko hitzorduak Abenduak 1, larunbata

KIROL JOLASAK

👉 IGERIKETA

Musakolan

09:45 Erguin, SFX (S. Teresa) 1, SFX (S. Teresa) 2, S. Viator A

10:45 Aramaio, SFX B, SFX D, SFX U, S. Viator D

11:45 Musakola, La Merced, SFX C, SFX A, S. Viator B

11:45 SFX ST - Erguin

12:30 Aramaio - SFX B

MULTIKIROLA

👉 MINISASKIBALOAIA

Gazteluondon

👉 NESKAK

10:15 Erguin - La Merced

MUTILAK

09:30 La Merced - Aramaio San Viator B - Erguin

10:15 SFX B - S. Viator A

11:00 SFX A - SFX U

INFANTILAK

👉 SASKIBALOAIA

👉 NESKAK

Autobusa Garibain

Mariaren Lagundian

10:00 M. Lagundia - S. Viator A Zubikoan

12:00 Txantxiku 1a - S. Viator B

12:15 Aozaraza 1a - SFX

MUTILAK

Mariaren Lagundian

11:00 Ipintza - S. Viator

Zubikoan

12:15 Aozaraza 1a - SFX

👉 FUTBOLA

👉 NESKAK

Autobusa Garibain

Atxabalpen

09:00 La Merced - Aoza 2

09:00 SFX - Txantxi Dbh 2a

Ipintzan

11:15 M. Lagundia - Arrasate

MUTILAK

Musakolan

10:30 SFX - La Merced

AURREKIROLA

👉 MINIESKUBALOAIA

Jurripen

09:30 S. Viator A - SFX D

10:15 Musakola - San Viator B SFX C - Merced B

11:00 SFX E - SFX U

SFX A - La Merced A

Akordeoi txapelketak abian



Hauspoz Euskal Herriko Akordeoilari Elkarteak eguenean aurkeztu zituen Arrasateko Akordeoi Lehiaketak. Urtero bezala, hiru lehiaketa jokatu dira: Gipuzkoako XXI.a, abenduaren 6an eta 8an; Gipuzkoako XIII. Jaialdia, egun berberetan; eta inportanteena, VIII. Nazioarteko Lehiaketa. Danimarka, Ukraina, Jugoslavia, Alemania, Portugal, Errusia, Mazedonia, Polonia eta Estoniatik etorriko dira parte hartzaileak. Abenduaren 5etik 8ra arte izango da hau.

EMANALDIAK EGUNERO

Astelehenetik aurrera lehiakideek euren trebezia erakutsiko dute egunero Amaia antzokian. Sari banaketa abenduaren 8an izango da eta sariak hauek izango dira : trofeoa, txapela eta 500.000 pezeta; trofeoa eta 250.000 pezeta; eta 100.000 pezeta. Bitartean, Sergei Voitenko iazko txapelduaren artearekin gozatzeko aukera izango dugu abenduaren 7an parrokian eskainiko duen saio batean.

Kontzertua "Pedrotxo"ren omenez



RIP taldeak parte hartuko du emanaldian, besteak beste.

Musika eskaintza berezia izango dugu bihar Arrasaten: Pedro Guridi "Pedrotxo" preso arrasatearraren omenezko kontzertua, Senideak eta Gestorek antolatuta, udalaren eta AGAKOren laguntzarekin. *Heriotza*, *Txapelpunk*, *Kañeria 13* eta *RIP* taldeek joko dute, guztiak ere punk-rock estilokoak. *Kañeria 13* eta *RIP* Arrasatekoak

dira, *Heriotzako* kide batzuk ere bai, eta gainontzekoak, Eskoriatzakoak; *Txapelpunk*, aldiz, Lekeitiotik datorkigu, baina 2 kide arrasatear ditu.

Musakolako kiroldegian izango da emanaldia, 22:00etan; sarrerak 1.200 pezetan daude salgai Irati eta Ekaitz tabernetan; txarteldegian 1.500 pezetan salduko dira.

EKITALDI JENDETSUA

Aurten bete ditu Pedro Guridik 20 urte kartzelan. 43 urte ditu, eta, hainbat espetxetan egon ondoren, gaur egun Langraitzen dago. Biharkoa ez da izango "Pedrotxo"ri egiten zaion lehen omenaldia: azaroaren 3an kale agerraldia eta Amaia antzokian ekitaldia izan ziren. Ekintza horiek oso erantzun ona jaso zuten.

Putzen seigarren zenbakia aurkeztu zen

Putz aldizkariaren seigarren zenbakia joan den martitzenean aurkeztu zuten Arrasateko Eskola Politeknikoan. Baina, zenbaki berria ez da bakarrik etorri, baizik eta *Puntu eta Koma Etilikoak* ipuinen liburu, musika CD eta 2001erako egutegi batekin batera. CDa oparitu egingo da aldizkariarekin batera; liburu eta egutegia aparte salduko dira.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan aur-



keztu zuten Putz orain urtebete, eta haraxe bueltatuko dira egu-

notan, berrikuntza batekin: euren web orria aurkeztuko dute.

MARIJE APODAKA (HEZKIDETZA TEKNIKARIA)

“Neska-mutikoen arteko desberdintasunak ezkutuan, baina egon badaude”

Bilboko Urtxintxa Aisialdi Eskolako irakasle da Marije Apodaka. Arrasateko Udalaren enkarguz, hezkidetza -mutiko eta neskatilak berdintasunean hezitzea- proiektu batean ari da lanean Marije.

— Zein berezitasun du Arrasaten egiten zabilzan lanak?

— Orain arte, hezitzaileekin edo umeekin eurekin egin izan da lan hezkidetza sustatzeko, baina familian landu nahi dugu hezkidetza, eta ikastetxeetatik kanpo, familian, aisialdian eta beste alor guztietan garatu beharreko zerbeit dela erakutsi. Orain, Arrasaten hezitzaile talde batekin ari gara lanean, eta urtarrilera arte hezkidetza teoriarik landuko dugu. Hortik aurrera, etxetara bidaltzeko buletin bat egiten hasiko gara. Musakola, Institutua eta, akaso, Erguingo ikastetxeekin jardungo dugu. Buletin horiek, umeen bitartez, etxetara iristea nahi dugu. Gure lan-esparru nagusia familia da.

— Horrek ez du eskatzen pentsamoldea aldatzea?

— Bai, guztion aldetik. Heziketa osoa eskolan eman behar dela pentsatzen dugu, baina heziketa gizarte osoan ematen da, baita familian eta etxetik kanpo



ere. Esparru bakoitzean dauden pertsonak hezitzaileak dira, eta horiek hezkidetzailak izan daitezke, edo ez. Gehienok hezitzaileak gara, baina ez hezkidetzailak, eta hori da landu beharrekoa.

— Baina, desberdintasunak askoz nabarmenagoak ziren lehen...

— Sistema zen nabarmena: arau eta desberdintasun batzuk markatzen zituen. Gaur egun, hori ez da hain nabarmena, baina desberdintasunak egon badaude, ezkutuan dauden arren. Adibidez, 12 urteko nesken eta mutilen artean, sexualitateaz berba egiterakoan, sumatzen da.

Baita, oro har, euren artean berba egin eta komunikatzen direnean. Desberdintasuna ez da txarra, ez eta ona ere; hierarkizazioa da txarra, eta emakumeek beheko partean segitzen dute.

— Zein tresna erabiltzen dituzue hezkidetza lantzeko?

— Bi tresna ditugu: batetik, jolasa; bestetik, aisialdian, umeen artean, helduen artean eta ume eta helduen artean ematen diren harremanak. Jolasean eta aisialdian baloreak eta jarrerak transmititzen dira, eta umeei horiek barneratzen dituzte.

— Azaroaren 25ean izan zen Tratu Txarren Nazioarteko Eguna. Sakontzen duzue horretan?

— Zuzenean, ez. Urtxintxan elkarbizitzarako jarrerak lantzen ditugu, eta tratu txarrak hemen sartzen dira. Izan ere, elkarrekin bizitzen ez dakigun ondorio dira. Jardunaldietan parte hartzen dutenek gai batzuk proposa ditzakete, eta tratu txarren gaia beti irtetzen da. Etxeko helduen artean errespetua eta komunikazioa dagoen behatzen dugu, eta diagnosi hori eginda ikus daiteke tratu txarrak ematen diren. Fisikoki ez ezik, hitzez ere izaten dira.

“Desberdintasuna ez da txarra, ez eta ona ere; hierarkizazioa da txarra, eta emakumeek beheko partean segitzen dute”

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

Expres kafetegia

- Ogi egin berria
- Olagarroa eta riveiro ona
- Urdaiazpiko egosia
- Kazuelatxoak

Maalako errebala, 8 • Tel.: 943 77 13 87

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.

Albiste iturri gehiago Arrasate Irratian



Gaurtik aurrera, Arrasate Irratian bailarako berriak entzuteko aukera izateaz gain, Euskal Herrian gertatutakoaren berri zuzena ere izango dugu Euskadi Irratiko 13:00etako albistegiaren bitartez.

Irailean, teknologia berrien laguntzaz, Arrasate Irratia 24 orduz uhineratzen hasi zen. Irailetik hona ordenagailuak eskaintzen dituen abantailak ikasten jardun dute eta, ekinez, lortu dutela esan daiteke. Gaur egun, beraz, zuzeneko saioak izateaz gain,

musikaz hornitzen ditugu 107.7ko uhinak. Baina, aurretantzean, beste berrikuntza bat izango dugu Arrasate Irratian: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 13:00etatik 13:30etara, Euskadi Irratiarekin bat egingo du, albistegi nagusia entzuteko aukera izateko eta, bide batez, Arrasate Irratiaren bitartez bailarako Euskal Herriko zein atzerriko azken gertakariak jasotzeko.

Datorren asteko egutegia berezi samarra izango da,

jaiegunak tarteko direla; hori dela eta, gure irratian ere hainbat aldaketa izango ditugu. Goizetako irratsaioak, albistegiak eta Igo autobusera! magazina, esaterako, lau egunetan izango ditugu, ohiko ordutegiarekin, astelehenetik eguenera bitartean. Arratsaldetan, betiko legez, errepikapenak izango dira. Baina, iluntzeko saioak gutxiago izango dira, astelehen eta martitzenean bakarrik uhinerratu tuko dira-eta, iluntzeko 8ak eta 10ak bitartean.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan

Gaurtik aurrera...



astero, zure eskura.



GOIENKARIA, DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Gaztetasuna izugarri gozatu duen pertsona batek bidali digu aste honetako argazki zaharra, gozamen horren oroimen eta erakusle.

La Merced Ikastetxeko ikasleak dira mozorrotuta dauden horiek. Eskolako Sor Angeles Lasa mojaren eguna zela eta, antzezlan bat egin zuten bere omenez, eta horra, aktoreen argazkia! Ezkerretik hasita:

Begoña Markaide, Begoña Uriarte, Henar eta Araceli Fuentes ahizpak, Mari Carmen Beitia, Mari Carmen Zubillaga eta Achen Etxebarria.

1950eko hamarkadaren amaiera aldera ateratu zuten

argazkia, frantziskotarren klausuroetan, han zegoen eta La Merced Ikastetxearen eskolaurrea.

Argazkia eta berriemailea:
Achen Etxebarria.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

EUROPCAR

Autoen Alokairua

MONDRAGON

ARRASATE



EUROPCAR

DAGOENeko
ZURE HIRIAN
DAGO.

Hotel Mondragon. Biteri etorbidea, 16. Tel.: 943 792 482

Europcar

AUTO BAT ALOKATZEA BAINO GEHIAGO

Garai berrietan ere...



Erosotasuna



hemen aurkituko duzu

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

**a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar muebles
sofa leku**

- Tel.: 943 79 15 03
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 77 14 92

aemeinteriores@euskalnet.net

amuebmondra@euskalnet.net